

02/2017 UDALEKO OSOKO BILKURA

2017KO MARTXOAREN 27AN IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Pedro M^a Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Aratz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

Izaskun Jauregi Saizar (EH Bildu taldea)

Josune Eizmendi Manterola (EH Bildu taldea)

Bakarne Olano Manzano (EH Bildu taldea)

Iñaki Merino Castro (EAJ taldea)

Kepa De la Iglesia Sánchez (EAJ taldea)

BITARTEKO IDAZKARIA:

Pedro M^a Odriozola Zubizarreta

Anoetako udaletxean, 2017ko martxoaren 27an arratsaldeko zazpiak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M^a Estanga Lasa Alkatearen Lehendakaritzapean, eta Pedro M^a Odriozola Zubizarreta jauna, Bitarteko Idazkari lanetan aritu naiz.

Francisco Berbel Perez eta Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotziak ez dute ezin etorria adierazi.

1.- **2016KO AZAROAREN 28AN ETA 2017KO MARTXOAREN 1EAN OSPATURIKO UDAL PLENOAREN BILKUREN AKTAK ONESTEKO PROPOSAMENA.**

2016ko azaroaren 28ko eta 2017ko martxoaren 1eko udal plenoaren bilkuren aktak aho batez onartu dira.

2.- **EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2016KO AZAROAREN 16TIK ABENDUAREN 29A BITARTE, 357 ZENBAKITIK 432 ZENBAKIRA, BIAK BARNE, ETA 2017KO URTARRILAREN 9TIK MARTXOAREN 15A BITARTE, 1 ZENBAKITIK 124 ZENBAKIRA, BIAK BARNE.**

2016eko azaroaren 16tik 2016ko abenduaren 29a bitartean eta 2017ko urtarrilaren 9tik 2017ko martxoaren 15a bitartean izaniko ebazpenen berri ematen du alkate jaunak, udal batzarkideak jakinaren gainean geratuz.

3.- **2016KO ABENDUAREN 29KO 421 ZENBAKIDUN ALKATE EBAZPENAREN BERRI EMATEA: DIRUZAIN FUNTZIOAK IDAZKARI KONTU HARTZAILE LANPOSTUARI ATXIKITZEA 2017KO URTARRILAREN 1EKO ERAGIN DATATIK AURRERA.**

2016eko abenduaren 29ko 421 zenbakidun ebazpenaren berri ematen du alkate jaunak, udal batzarkideak jakinaren gainean geratuz.

“DEKRETUA

Anoetan, 2016ko abenduaren 29an

2015eko uztailaren 6ko udalbatzak, Udal-ogasuneko Diruzaina korporazioko kide bat izendatzeari buruzko akordioa ikusi ondoren.

2015eko uztailaren 7ko Alkate dekretu bidez Udal-ogasuneko Diruzaina Izaskun Jauregi Saizar andrea izendatzea erabaki zela ikusi ondoren.

Idazkari kontu-hartzaileak txosten bat egin du.

Dagozkidan eskuduntzak erabiliz, **EBATZI DUT:**

Lehena.- 2015eko uztailaren 7ko Alkate dekretu bidez Udal Ogasuneko **Diruzain** Izaskun Jauregi Saizar andrearen izendapena bertan behera uztea 2016ko abenduaren 31ko eragin datarekin.

Bigarrena.- Anoetako Udal Ogasuneko **Diruzain** funtzio edo eginkizunak Idazkari Kontu-hartzaile lanpostuari atxikitzea 2017ko urtarrilaren 1eko eragin datatik aurrera.

Hirugarrena.- Banku erakunde laguntzaileei jakinarazi, dokumentuak, sartzeko gakoak, sinadurak eta informatika bidezko komunikaziorako tresnak formalizatzeko, Anoetako Udaleko kontu guztietako kobrantza eta ordainketak inolako trabarik gabe egin daitezzen.

Laugarrena.- Ebazpen honen berri ematea Udalbatzak egingo duen hurrengo bilera arruntean.

Honela agindu eta sinatu du Pedro M^a Estanga Lasa alkate jaunak eta nik idazkariak fede eman.

Alkatea

Idazkaria”

4.- **UDALSAREA 21, JASANGARRITASUNERAKO UDALERRIEN EUSKAL SAREA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TOKIKO JASANGARRITASUNAREKIKO KONPROMISOA BERRITZEA.**

Ikusirik UDALSAREA 21eko (Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea)ko espedientea eta 2016ko ekainaren 8an bildutako Ingurumen eta Baserrri batzordeak egindako aldeko irizpena: **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TOKIKO JASANGARRITASUNAREKIKO KONPROMISOA BERRITZEKO AKORDIOA: “UDALSAREA 21, JASANGARRITASUNERAKO UDALERRIEN EUSKAL SAREA” dokumentuari atxikimendua agertu eta konpromiso horretatik eratorritako erantzukizunak betetzea.**

2002ko abenduaren 20an sinatu zen UDALSAREA 21, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarearen eratze Hitzarmena. Anoetako udalak 2007ko apirilean sinatu zuen lehenengo aldiz bere atxikimendua eta 2010ean atxikimendua berritu zuen. Beraz, 2007 urtea geroztik UDALSAREA 21eko kide izan da.

Sarearen helburuak, administrazio publikoen arteko koordinazio-foro izan, udal mailan jasangarritasuna sustatu, eta euskal udalerrietan Tokiko Agenda 21 ezartzeko aurrerapausoak ematea dira, EAEko Ingurumen Esparru Programarekin bat etorritik.

Jakinekoa denez sarearen jarduerak gauzaten ari diren arren, 2010ean berritutako **hitzarmenaren indarraldia 2015eko abenduaren 31ean amaitu zen.**

Hori dela eta, **Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Jasangarritasunarekiko konpromisoa berritzeko akordioa helarazi dute.**

Dokumentu horretan besteak beste ondorengo puntuak deskribatzen dira:

Lehena. Xedea:

EAEko tokiko jasangarritasunarekiko konpromisoa berritzea, “Udalsarea 21, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea” handitzea, kidetutako administrazioen jarduera-esparruari eta kopuruari dagokionez.

Bigarrena. Udaletxeen erantzukizunak:

- Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sareko kide izan eta kide izaten jarraitzea.
- Tokiko Agenda 21 ekimenak burutzen jarraitzea, udalen konpromiso politikoaren eta etengabeko hobetze nahiaren adibide gisa, bai eta udalerriko garapen jasangarria sustatzea ere, proiektu horren arduraduna eta ordezkoa izendatuz.
- Informazioa ematea eta esperientzia interesgarriak partekatzea Udalsarea 21en esparruan.
- Konpromiso honekin lotuta egiten diren komunikazioetan Udalsarea 21 aipatuko da erreferentzia gisa.

Hirugarrena. IHOBE SA, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren erantzukizunak:

- Udalsarea 21en kudeaketa administratibo eta laguntza teknikoa.
- Udalsarea 21era kidetutako udalerrietarako Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak egindako planen edota programen helburuekin lerrokatutako funtsezko esparru interesgarrietan proiektuak garatzea sustatzea.
- Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarearen web domeinua kudeatzea eta eguneratzea.
- Sarea kudeatzeari eta dinamizatzeari loturiko gastuak ordaintzea, ezarritako helburuak betetzeko.

Laugarrena. Indarraldia:

Akordio hau onartzen den egunean jarriko da indarrean eta 2020ko abenduaren 31ra artekoa izango da. Data horretan, automatikoki luzatu ahal izango da, alderdiek hala adosten baldin badute.

Bosgarrena. Ezagutarazpen eta komunikazio publikoa:

Udalsarea 21en esparruan garatutako proiektuetan lortutako informazioa publiko ezagutarazi aurretik, Sarearen Idazkaritza Teknikoa jakinaren gainean jarri beharko da. Informazioa publiko ezagutaraztean, Sarearen logotipoak eta aipamenak sartu beharko dira, horretarako propio sortutako estilo-liburuan ezarritakoari jarraiki. Aipatutako proposamena bozketara eraman eta aho batez onartu da.

5.- ANOETAKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN TESTU BATEGINA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2012ko apirilak 23ko Udalbatzaren akordio bitartez hasierako onarpena eman zitzaion Anoetako HAPO-ri.

2015eko urtarrilaren 26ko Udaltzaren akordio bitartez behin behineko onarpena eman zitzaion Anoetako HAPO-ri.

Behin behineko onarpena egina zegoenean ikusi zen zenbait alderdi aldatzeko beharra (Modesto-Enea, Arautegi Orokorreko 119 eta 120 artikulua , 1-8 Planoak), eta aldaketa hori izapidetu zen.

2015eko irailaren 28ko Udaltzaren akordio bitartez behin behineko onarpena eman zitzaion aldaketa horri, eta ondoren jendaurreko erakustaldia egon zen.

Erakustaldian ez zen alegaziorik egon.

Arkitekto aholkulariak 2015eko abenduaren 11-ko datarekin txostena egin zuen, bertan alegaziorik egon ezenez, aldaketa onartzea eta HAPOren espedientearekin jarraitzea proposatzen zen.

2015eko abenduaren 16ko Udaltzaren akordio bitartez behin behineko izaeraz 2015eko urtarrilaren 26ko Udaltzaren akordio bidez onartutako Anoetako Hiri-antolamenduko Plan Orokorren aldaketa dokumentu osagarriari onarpena eman zitzaion.

2015eko abenduaren 16ko Udaltzaren akordio bitartez ere Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari Anoetako Hiri-antolamenduko Plan Orokorren espedientearen aginduzko txostena eskatzea onartu zen, espedientea Gipuzkoako Foru Aldundiari bidali baino lehen, honek behin betiko onarpena eman diezaion, hala badagokio.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak 2016ko urriaren 5ean izandako 4/2016 Osoko Bilkuran, aldeko irizpena eman zuen, zuzenketa batzuk egiteko baldintzapean.

Aztertu da Idazkariak 2017ko otsailaren 29ko datarekin egindako txostena.

2017ko martxoaren 1ean Anoetako Udaleko Hirigintza Batzordeak irizpena eman zuen.

Horiek guztiak ikusita, akordio hauek onartzen dira, eskubidez eta izatez korporazioa osatzen duten bederatzi zinegotzietatik bertaratu diren zazpi zinegotzien aldeko botoarekin, hau da legeak ezartzen duen gehiengo osoaren aldeko botoekin :

Lehena.- Anoetako Hiri-antolamenduko Plan Orokorren Testu Bategina jasotzen duen dokumentua onartzea.

Bigarrena.- Anoetako Hiri-antolamenduko Plan Orokorren Testu Bategina jasotzen duen dokumentuaren lau ale Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, honek behin betiko onarpena eman diezaion, hala badagokio.

6.- **2017 EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRA, AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUA, UDALEKO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTU ZERRENDA ONESTEKO PROPOSAMENA.**

2017 urteko Aurrekontu Orokorra ikusirik.

2017ko Aurrekontuak gauzatzeko Araua ikusi ondoren.

2017 ekitaldirako Plantilla Organikoa eta Lanpostuen zerrenda ikusi ondoren. Udaleko idazkari kontu-hartzaileka egindako txostenak ikusi ondoren:

- Finantza eta ekonomia
- Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruzkoa.
- Espedientearen tramitazioa
- Plantilla Organikoa eta lanpostuen zerrenda.

2017ko martxoaren 23an Ogasun Batzordeak emandako irizpena ikusi ondoren.

Alkateak Aurrekontu osoaren berri eman ondoren bozketara eraman du ondorengo emaitza lortuz:

Aldeko botuak: BOST (EH Bildu taldearenak)

Aurkako botuak: BAT ERE EZ

Abstentzioak: BI (EAJ taldearenak)

Beraz, bozketaren emaitza ikusi ondoren erabakitzen da:

Lehena.- 2017 ekitaldirako Udalaren Aurrekontu Orokorra onestea, kapituluka honela laburbilduz:

Sarrerera egoera:

Kapituloa	Izena	Euro
1	Zuzeneko zergak	476.800
2	Zeharkako Zergak	16.800
3	Tasak eta bestelako sarrerak	298.055
4	Transferentzi arruntak	1.359.073
5	Ondare-sarrerak	14.850
6	Inberts. Erreal.besterenganat zea	1.813
7	Kapital Transferentziak	30.600
8	Finantza aktiboak	0
9	Finantza pasiboak	0
GUZTIRA SARREREN AURREKONTUA		2.197.991

Gastuen egoera:

Kapituloa	Izena	Euro
1	Pertsonal gastuak	689.937
2	Ondasun arrunt eta zerb. erosketa	750.273
3	Finantza gastuak	1.100
4	Transferentzia arruntak	367.281
6	Inbertsio errealak	215.400
8	Finantza-aktiboak	0
9	Finantza-pasiboak	174.000

GUZTIRA GASTUEN AURREKONTUA	2.197.991

Bigarrena.- 2017 urteko Udalaren Aurrekontua gauzatzeko Araua onestea.

Hirugarrena.- 2017 urterako ondorengo Plantilla Organikoa eta Lanpostu Zerrenda onestea:

1.- 2017. URTERAKO PLANTILA ORGANIKOA

A) KARRERAKO FUNTZIONARIOEI ERRESERBATURIKO POSTUAK

a) Gaikuntza Nazionaleko eskala

Lanpostuaren deitura	Kopurua	TALDEA	Egoera
1.- Idazkari Kontu-hartzailea	1	A1	H

b) Administrazio Orokorreko eskala

Lanpostuaren deitura	Kopurua	TALDEA	Egoera
1.- Administrazio Orokorreko teknikaria	1	A1	J
2.- Administraria	1	C1	J
3.- Administrari laguntzailea	2	C2	H

c) Administrazio Bereziko eskala

- Azpi eskala teknikoa

Lanpostuaren deitura	Kopurua	TALDEA	Egoera	Jarduna
1.- Aparejadorea	1	A2	H	% 68,6
2.- Gizarte Langilea	1	A2	H	% 60
3.- Hizkuntza normalkuntzarako teknikaria	1	A2	H	% 60
4.- Kultur Dinamizatzailea	1	A2	J	
5.- Liburutegi arduraduna	1	C2	H	% 52

- Azpi eskala Zerbitzu Bereziak

Lanpostuaren deitura	Kopurua	TALDEA	Egoera
1.- Zerbitzu anitzetako ofiziala	1	C2	J

B) LAN HITZARMENDUN LANGILEAK

Lanpostuaren deitura	Kopurua	TALDEA	Egoera	Jarduna
1 Kale garbitzailea	1	E	H	
2 Eraikin garbitzailea	2	E	H	1 % 57
3 Zerbitzu anitzetako peoia	1	E	BB	
4 Eraikinen mantenua	1	C2	E.A.	
5. Aparejadorea	1	A2	Desagertzear	
6. Euskara Teknikaria	1	A2	Desagertzear	

C) ALDI BATERAKO LANALDIETARA GORDETAKO POSTUA

Ez dago

EGOERA

J: Jabetzan

BB: Behin betiko

H: Hutsik

E.A: Erretiro aurreratua

2.- ANOETAKO UDALEKO 2017. URTERAKO LANPOSTUEN ZERRENDA

A) *Karrerako funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak*

DEITURA	LANP. KOPU.	ORDAIN OSAGAIA K DESTINU ESPEZIF	TALDEA	ESKALA	AZPI ESKALA	HIZKUNTZA ESKAK. KOE DER.DAT	BET. ERA	E.TIT	DED %.	BALDIN. ESPEZIF

Idazkari Kontu hartz.	1	20	A1		GN	IK	4	94.XII.31	L	1	100	
		16666										
Administr. Orok. Teknikaria	1	21.1.249	A1	AO	T	4	06.II.16	LO		1	100	
Aparejador ea	1	19.12.314	A2	AB	TB	3	02.XII.31	LO		3	68,6	
Gizarte langilea	1	17.6.973	A2	AB	TB	3	92.XII.31	LO		3	60	
Hizkuntza Nor.tek	1	17.5.413	A2	AB	TB	4TG	---	LO		3	60	
Kultur dinamizat.	1	17.7.991	A2	AB	TB	3	00.XII.31	LO		3	100	
Administrazio	1	14.12.901	C1	AO	AA	3	94.XII.31	LO		4	100	
Administr. Lagun.	2	11.11.900	C2	AO	AL	2	92.XII.31	LO		5	100	
Liburutegi ardurad	1	14.6.617	C1		AB	AA	3	92.XII.31	LO	4	52	
Zerb. Anitz. Ofiziala	1	12.1.4899	C2		AB	ZB	2	94.XII.31	LO	5	100	% 15

B) Lan hitzarmendun langileentzat erreserbatutako lanpostuak

Lanpostua	LANP. KOPURUA	ORDAIN OSAGAIK DESTINU OSAG. OSAG. ESPEZIF	TALDEA	HIZKUNTZA ESKAK. KOEF DER. DATA	BETERA	E. Tit	DED.%	
Kale garbitzailea	1	8.11.068	E	1	09.XII.31	LO	6	100
Eraikinen garbitzailea	1	8.10.885	E	1	92.XI.31	LO	6	100
Eraikinen garbitzailea	1	8.6.204	E	1	08.XII.31	LO	6	57
Zerbitzu anitzetako peoia	1	8.10.885	E	1	00.XII.31	LO	6	100
Eraikin Mant.	1	11.6.204	C2	1	07.V.09	LO	5	100
Aparejadorea	1	19	12.314		A2	Desagertzeaz		
Euskara Teknikaria	1	17	5.413		A2	Desagertzeaz		

KLABEAK

TALDEA EDO ESKALA
GN GAIKUNTZA NAZIONALA
AO ADMINISTRAZIO OROKORRA
AB ADMINISTRARIO BEREZIA

AZPIESKALA

IK: IDAZKARI KONTU HARTZAILEA
T: TEKNIKARIA
TB: ADMINISTRAZIO BEREZIKO TEKNIKARIA
AA: ADMINISTRARIA
AL: ADMINISTRARI LAGUNTAILEA
ZB: ZERBITZU BEREZIAK

HORNIDURA MOTA

L LEHIAKETA
LO LEHIAKETA OPOSAKETA

ESKATUTAKO TITULUA:

TITULAZIOA

1. LIZENTZIATURA
2. UNIBERTSITATEKO DIPLOMADUNA,
ARKITEKTO TEKNIKOA.
3. BATXILERGOA, LANBIDE HEZIKETA 2. MAILA
EDO BILIOKIDEA.
4. ESKOLA GRADUATUA, LH 1.MAILA EDO
BALIAKIDEA.
5. ESKOLA AGIRIA

Laugarrena.- Hasierako izaeraz onetsi den Aurrekontu Orokorra, Plantilla Organikoa eta Lanpostu zerrenda, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, indarrean dagoen legediak agintzen duena bezala.

Aurrekontu Orokorra jendaurrean aurkezturik dagoen epealdian inolako erreklamaziorik aurkeztzen ez bada, behin betiko izaeraz onetsita geratuko da, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da berriro, kapituluz kapitulu laburturik.

Bosgarren.- Aurrekontu Orokorra, behin-betiko izaeraz onetsirik, eta Plantilla Organikoaren eta Lanpostu Zerrendaren kopia bana, Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, dagokion departamentuetara.

7.- “MARTXOAREN 21, ARRAZAKERIAREN ETA XENOFIARIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA” ERAKUNDE ADIERAZPENA.

Galde-erreguen tartearen aurretik, partaideen aldetik aho batez premiatasuna adierazi ondoren, eta udalbatzako batzarkide kopuru legalaren gehiengo absolutuaren boto baikorra ordezkatzeko dutela kontutan harturik, ondorengo gaia aztertu da:

EH Bildu talde politikoak deialdia banatu ondoren aurkeztutako ondorengo erakunde adierazpena:

“Nazio Batuen Batzar Nagusiak martxoaren 21ean ospatzen du Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Kontrako Nazioarteko Eguna, eta estatu-kideei eskatzen die ekintza-planak abiarazi ditzaten, arrazakeria eta apartheidia ezabatzeko. UNESCOko zuzendari nagusiak 2017an zabalduzako mezua gogorarazten digu arrazakeriak gizabanakoak eta gizarteak hondatzen dituen pozoia dela, ezberdintasunak iraunarazten dituela, eta haserrea, amorrua eta

indarkeria bultzatzen dituela. Krisi ekonomikoa eta ziurgabetasun soziala ezaugarri duten garaiotan, erraza da “bestea” erruduntzat hartzea, eta arraza-diskriminazioa tentazio arriskutsua bihurtzen da, zeina gorrotoaren artisauek ondo aprobetxatzen dakiten.

Gaur egungo arrazakeria-, arraza-diskriminazio, xenofobia- eta antzeko tolerantzia-ezeko ereduak NBEko errelatore bereziak txostena egin zuen 2013an Espainiaren inguruan. Bertan, gogor kritikatu zuen arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako legeria, eta baietzi zuen migratzaile, ijito eta errefuxiatuen eskubideak urratzen zirela. Zehazki, adierazi zuen krisi ekonomikoak atzerakada ekarri zuela arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan; besteak beste, ildo horretan lan egiten duten erakundeek laguntza finantzarioaren ezagatik.

Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurkako Europako Batzordea (ECRI) Espainiara etorri da 2017ko urtarrilean, bosgarren txostena egiteko asmoz. Laugarren txostenean (2011) Nazio Batuetako errelatoreak agertutakoen antzeko kezka jaso ziren.

Martxoaren 21ak gogorarazten digu edonolako arraza-diskriminazioa ezabatu beharra dagoela; eta bereziki garrantzitsua gertatzen da, gizarte guztietan oraindik jarraitzen eta irauten duten xenofobia-mota sotilez gain, beste xenofobia-adierazpen kezagarriak azaleratu direlako, gobernuek, gizarte-erakundeek, alderdi politikoek eta beste hainbat eragilek sustatuta. Horiek xenofobia-eredu instituzionalizatuak bihurtu daitezke eta, ondorioz, diskriminazioa ekarri dezakete. Halako jarrerak, behin martxan, oso zailak dira gelditzen. Jakina, Europatik iristen diren oihartzun larrigarri ugariak direla eta, egoerarik txarrean aurreikusten dugu, eta horixe barneratzen dugu, bai eta Europaren aukera ere.

*Mugimendu xenofoboak gizartean zabaldu ohi dira, inpunitate eremuak zein onespenguneak sortuz. Egoera horiek sendotu eta finkatu egiten dira liderrak proposatzen dituztenenean, gizartean haien parekorik ez dagoela baieztatzen dutelarik. Hala, pentsamolde ideologikoak askatzen dituzte, zeinek, lehenetsun nazionalaren izenean, tarte gordetzen eta indartzen duten biztanleriak duen immigranteen behar materialaren eta etorkinek harrera-gizarteetan jasaten duten gaitzespenaren artean. Bada logika hori lagungarria eta okerra dena aldi berean laburtzen duen lema bat: **Needed, but not Wellcome!***

***ANOETAKO UDALA, ZAS!** Zurrumurruen Aurkako Sarearen parte izanik, aditzera eman nahi dugu **konpromisoa hartu dugula dauden prozedura eta mekanismo guztiak sustatu eta abian jartzeko, xenofobia- eta diskriminazio-ereduak sotilak eta agerikoak, ala ez hainbeste sustatu nahi dituzten proposamen politiko eta diskurtsoak ahultzeko.** Adierazpen eta diskurtso horiek ez dira gure izenean egingo, ez eta erakundeek izenean ere.*

Ikusirik politika xenofoboek zenbateraino egin duten aurrera Europan eta mundu-mailan, berretsi nahi dugu gure konpromisoa; hots, inpunitate dinamikak galaraztearena baiezko demokratiko eta irmo baten bidez, ez daitezen gobernura iritsi. Giza eskubideek lehentasuna dute, eta eskuratu ditugun gobernu-moldeek barne hartu behar dituzte; horretarako, beharrezkoa da erakundeek irmoki uko egin diezaietela xenofobiari eta arrazakeriari.

ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sareak ezinbestekotzat jotzen du:

- *Arrazakeria eta xenofobia prebenitu eta ezabatzeko politika publikoak nahiz gizarte-estrategiak bultzatzea, ikuspegi deskolonizatzaile batetik eta elkargunea bilatuz.*
- *Immigranteek egindako ekarpenak azpimarratzea, eta Euskadiko biztanle guztien aukera berdintasuna bermatzea, baita sustapen sozial, ekonomiko eta kulturalerako aukerak indartzea ere.*
- *Kulturartekotasunaren aldeko eta arrazakeriaren aurkako jarrerak sustatzen dituzten hedapen- eta sentsibilizazio-ekintza nahiz estrategiak aktibatzea, zurrumurruen aurkako sareak sendotuta eta hezkuntzari arreta berezia eskainita, formalari zein ez-formalari.*
- *Etika publikoa sustatzea, zeinak herritarrak kontzientziatuko dituen eta edozein arrazakeria- edo xenofobia-aztarna ezabatuko duen.*
- *Alderdi politiko guztiek kode etikoa bereganatu dezatela gomendatzea, konpromisoa hartu dezaten demagogia eta populismorik ez egiteko immigranteen inguruan; bai eta mekanismoak ezarri ditzatela ere, konpromiso hori betetzen ez dutenak zehatzeko.*

Erakunde adierazpena aho batez onesten da.

7.- GALDE ERREGUAK.

Galde-erregu garaian, EAJ talde politiko bozeramailea den Kepa de la Iglesia jaunak 2016 urteko likidazioaren inguruan galdetu du. Hurrengo ohiko osoko bilkuran berri emango dela adierazi du bitarteko idazkariak.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zazpiak eta hamabost direnean; guzti honetaz, nik, Bitarteko Idazkariak, fede ematen dudalarik.